

Aurkezpena

Frida, Uxue, Oumayma eta Aritz gara, IES Josemiguel Barandiaran ikastetxeko ikasleak eta guk sortutako proiektua, moda jasangarriaren, teknologiaren eta komunitatearen arteko lotura aztertzeko asmoz jaio da ideia hau, gaur egungo kontsumo-ohiturei alternatiba arduratsu eta berritzaile bat eskaintzeko helburuarekin. Gazteon ikuspegitik, arropa trukatzeari esperientzia moderno, erabilgarri eta erakargarri bihurtu nahi dugu.



Aplikazioa arropa trukatzeko plataforma berritzailea da, moda jasangarria eta kontsumo arduratsua sustatzea helburu duena. Bertan, erabiltzaile bakoitzak jada erabiltzen ez dituen arropak igo ditzake modu errazean, argazkiak, deskribapen zehatzak eta taila bezalako informazio guztia gehituta. Arropak saltzearen ordez, komunitateko beste erabiltzaile batzuekin trukatzeko aukera eskaintzen da, arropak bigarren bizitza bat izan dezan eta alferrikako kontsumoa murrizteko.



Plataformak barne-ekonomia propioa izango du, kreditu sistema baten bidez funtzionatuko duena. Transakzio bakoitzean interes txiki bat aplikatzen da, sistemaren jasangarritasuna bermatzeko eta erabiltzaileen artean diru-trukerik egin beharrik gabe trukeak ahalbideratzeko. Horrela, erabiltzaileek beren armairua berritu ahal izango dute modu eroso, merke eta dibertigarrian, komunitatearen parte aktibo izanik.

Gainera, aplikazioak matching algoritmo adimendun bat integratuko du, Tinder bezalako aplikazioen antzera funtzionatuko duena. Algoritmo honek truke posibleak iradokiko ditu erabiltzaileen gustuak, estiloa, neurriak eta lehentasunak kontuan hartuta, esperientzia pertsonalizatuago eta eraginkorragoa eskainiz.

Bestalde, plataformak funtzio sozialak ere izango ditu, hala nola, beste erabiltzaileei jarraitzea, arropa gogokoak gordetzea edo “look” pertsonalizatuak sortu eta partekatzea. Ezaugarri hauek komunitatearen arteko harremanak sendotzea dute helburu, antzeko estiloa edo balioak dituzten pertsonen arteko konexioa erraztuz.

Laburbilduz, aplikazioak moda, jasangarritasuna eta komunitatea uztartzen ditu esperientzia bakar batean, arropa trukatzeari jarduera moderno, ekologiko eta zentzudun bihurtuz, eta kontsumo-eredu arduratsuago baten aldeko apustua eginez.

